

Eric Ayestaran Guillorme

A maila • 1 aipamena

Kaixo guztioi, Eric Ayestaran da nire izena. Oianguren institutuan ikasten dut eta Ordizian bizi naiz.

Kirol zalea eta matematikak izugarri gustatu arren, beti izan dut poesia idazteko joera. Beraz, Beasaingo leihaketa hau ikusi bezain laster, parte hartzea erabaki eta "NIRE BARNEKO GARTZELA" poema idatzi nuen. Besterik gabe, espero dut zuen gustukoa izatea.



NIRE BARNEKO GARTZELA

Isiltasuna nire pentsamenduen
muinean dabil
biraka, ezin geldi,
amaiezin, beti motel.
Iluntasunaren ertzean nago
beldurturik, dardarka.
-Aizu, lagundu,
atera nazazu hemendik!-

Lasaitasunaren arerioa dator,
soinua.
Ur tantanak dabilta nire azal
garratz eta hobenduna
gaingiroki ukitzen.
Nola?
Nork daki...
Mina, sufrimendua, errua.
Zergatik?
Nork daki...

Gora begiratuz gero
hormigoiz osatutako
sabai beltz eta lizuna.
Preso, sufrimendu kate luzeaz inguraturik.

-Aizu, lagundu,
atera nazazu hemendik!-

Etengabeko elkarrizketa
eginten diot sarri
neure buruari.
Marruka, erreguka,
irainka.
- Hain txarra ote da nire ibilkera?-

Behera begiratzuz gero
nire gorputzeko hezurak
geroz eta ikusgarriagoak egiten zaizkit.
Gosez hiltzen nago.
-Aizu, lagundu,
atera nazazu hemendik!-

Orduan...
Zu,
libre, mutu.
Harrigarria da,
Beroa eta samurtasuna
nabaritzen ditut,
zeruan dauden izar liluragarriak ikusteko gai naiz!
Nola egin duzu?
Ez da galdera erraza, ezta?
Maitea,
egur koloreko begi handiekin,
begirada sakon eta tinkoarekin,
lehenengo egunean ikusi zintudan bezalaxe zaude:
Kuzkurtuta,
beti bezain ederra.

Eguzki izpien moduan
haiek helarazten duten dohatsutasuna,
bizi-itxaropena eta suhartasuna
eman didazu.
Horregatik,
maitemindu naiz.
Jaretasuna lortu dut,
jada ez naiz esklabu.

OLERKIA

Orain, berriz,
zu zara.

Nire askatasuna
zu giltzapetzearen truk.

Sentitzen dut,
benetan
sentitzen dut.

Esker mila,
kuttuna.